

ELKARTASUNA ALKATE KURDUUEKIN

2016ko uztailearen 15ean estatu-kolpe saioa egon zen Turkian Recep Erdogan presidentearen gobernuaren kontra. Harez gero, eta saio hori aitzakiatzat hartuta, lehenagotik zetorren errepresioan eta giza eskubideen urraketan sakontzeari ekin zion Turkiako gobernuak.

2016ko uztailetik hona, 100.000 bat langile publiko kaleratu, 700 inguru unibertsitate-irakasle egotzi, 1.500 gizarte zibileko erakunde legez kanpo utzi eta hamarnaka hedabide itxiarazi ditu.

Ordezkarri politikoak ere kartzelaratu ditu, herri kurduaren ordezkariak nagusiki. Azken hilabeteetan herri kurduetan herritarrek demokratikoki aukeratutako 50tik gora alkate dekretuz kargugabetu ditu Turkiako gobernuak. Inongo prozesu judizialik gabe kargugabetu eta horietako 39 kartzelan sartu dituzte. Gainera, herritarren nahiari inposatuz, kargugabetutako alkateak Erdonganen AKP alderdiko alkateez ordezkatu dituzte.

AKP bezala pentsatzen ez duten herritarrentzat, oinarrizko giza eskubideak, askatasun demokratikoak eta adierazpen-askatasunak balio gutxiko baloreak dira gaur egun orokorrean Turkian eta bereziki Hernani senidetuta dagoen Semndinli/Semzinane herrian.

Horren guztiaren ondorioz, Hernaniko Udalaren osoko bilkurak honakoa adierazten du:

1. Azken urteotan Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa salatzen du. Bereziki 2016ko uztailearen 15eko estatu-kolpe saioaren ondoren areagotu dena. Herritarren oinarrizko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe eta larriki urratzen ari dira.
2. Bereziki larria da herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak gobernuak dekretuz kargugabetu izana.
3. Elkartasuna adierazten die alkate horiei, arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelaraturako ordezkari politikoei eta Semndinli/Semzinane herri kurduari.
4. Bat egiten du iazko azaroaren 24an Europako Parlamentuak Turkiaren atxikimendu-prozesua izozteko erabakiarekin. Turkian demokraziaren oinarriak jasaten ari diren higadura arrazoitzat hartuta hartutako erabakia.
5. Turkiako gobernuari eskatzen dio:
 - Errepresioarekin buka dezala
 - Oinarrizko askatasun demokratiko guztiak berrezar ditzala
 - Lehenera diezaizkiela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.
6. Erabaki honen berri emango dio Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari eta senidetutako Semndinli/Semzinane herri kurduari.